

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ESKUERNAGAKO UDALA

Gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzea, zehazki idazkari-kontuhartzaile lanpostu bat

Gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 48. artikulutik 51. artikulura xedatutakoaren arabera, jakinarazten da 2019ko azaroaren 1etik aurrera hutsik egongo dela Eskuernagako, Mañuetako eta Samaniegoko udal elkartearen idazkari-kontuhartzaile lanpostua. Horiek horrela, bost egun balioduneko epea irekitzen da gaikuntza nazionaleko zernahi funtzionarioek Eskuernagako Udalera bidalitako idazki bidez adieraz dezan interesa duela lanpostu hori aipatutako dekretuak 48. artikulutik 51. artikulura xedatutako legezko zernahi eraren bidez betetzeko.

Idazkia posta elektronikoko helbide honetara bidali behar da: avillabuena@ayto.araba.eus.

Eskuernaga, 2019ko urriaren 15a

Alkatea

IÑAKI PÉREZ BERRUECO